NÚMERO 18. ALEA 2011 /Lehen hiruhilekoa

# egkdigitala

euskadiko gazteriaren kontseiluaren boletin digitala
boletin digital del consejo de la juventud de euskadi

GAURKOTASUNA / ACTUALIDAD

## SASIAK SASI... lan ta lan!!!

Iragarpenak ekaitza aurreikusi du: Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 25.000 euroko defizitarekin hasi du 2011.urtea, Eusko Jaurlaritzak %20an murriztu diolako diru-laguntza. Bere proiektuak erabat mugatu behar izan ditu EGK-k, eta gutxi balitz, bederatzi langileetako norbait kaleratu edo jardunaldiak murriztu beharko ditu. Eta zaparrada honen aurrean...? Zaparradaren aurrean, laino guztien gainetik lanean darrai gazte-sareak. Elkartegintzaren alde. Gazteen alde. Eta jendarte eraldatzaile baten alde.

Nola? **egkDigitala** boletinak azken proiektuen berri ematen dizu!

## Al mal tiempo... ¡BUENA CARA! (y trabajo)

El pronóstico anuncia temporal: el Consejo de la Juventud de Euskadi ha arrancado 2011 con un **déficit de 25.000 euros** porque en dos años el Gobierno Vasco le ha reducido la subvención en un 20%. EGK ha restringido al mínimo sus proyectos, y a finales de año va a tener que reducir jornadas o despedir a alguna/o de sus nueve técnicos. ¿Y ante esta borrasca...? Ante esta borrasca, la red de asociaciones sigue trabajando en favor del **asociacionismo**, las personas **jóvenes** y una **sociedad transformadora.**

¿Quieres saber cómo? ¡El boletín **egkDigitala** te cuenta los últimos proyectos!

# 30. BATZAR OROKORRA! 30ª ASAMBLEA



## IKASLE ABERTZALEAK eta AJEBASK elkarteak EGK-ko partaide dira orain. Ongi etorri!

Ikasle Abertzaleak euskal ikasleen erakundeak eta Ajebask enpresari gazteen elkarteek Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan parte hartuko dute aurrerantzean. Hala onartu zuten (gehiengo osoz) gazte-elkarteen plataforma osatzen duten elkarteek, **martxoaren 19an** (larunbata) burutu zuten **30. Batzarrean.**

## IKASLE ABERTZALEAK y AJEBASK se incorporan al Consejo de la Juventud de Euskadi. Ongi etorri!

El movimiento estudiantil Ikasle Abertzaleak y la asociación de jóvenes empresarios Ajebask participarán en adelante en el Consejo de la Juventud de Euskadi (EGK). La **30ª Asamblea anual**, celebrada el **19 de marzo** en la agencia Bolunta de Bilbao, admitió por mayoría absoluta la incorporación de ambos colectivos a la plataforma asociativa juvenil. Ahora, son ya 57 las asociaciones que integran la red.

# Batzorde Iraunkor Berria!

# ¡Nueva Comisión Permanente!

Batzarran, bestalde, hurrengo **bi urteetan** zehar Kontseiluaren lana gidatuko duen Batzorde Iraunkorra aukeratu zuten taldeek. Hauxe da orain EGKren organo erabakitzaile horren konposaketa:

En la Asamblea, además, las asociaciones-miembro eligieron a la nueva Comisión Permanente. Éste es ahora el equipo que regirá el trabajo del Consejo durante los **próximos dos años**:

**RESIDENTZIA:** **Batiste Ezeiza Sánchez-Euskal Herriko Giak.**
Berriz aukeratu dute elkarteek eta, hortaz, indarberritua hasi du bere lana!

**1.PRESIDENTEORDETZA:** **Lurgorri**

**2.PRESIDENTEORDETZA:** **Euskalerriko Eskautak-Bizkaia**

**DIRUZAINTZA:** **EDE fundazioa**.

**IDAZKARITZA:** **Bizkaiko Gaztetxoen Koordinakundea.**

**BOKALIAK**: **Euzko Gaztedi (EGI), Juventud Obrera Cristiana (JOC), Euskal Herriko Baserritar Gazteak (EHNE), Geideak, Kale dor Kayiko, Iratzarri.**



## Memoria eta PLANGINTZAri argi berdea

Bestalde, 2010eko memoria eta 2011ko lan-plangintza **onartu** zituzten EGK-kideek. Honen harira, aipatzekoa da ere dagoeneko dokumentook Araba, Bizkaiko eta Gipuzkoako **Aldundietan aurkeztu** dituela Gazteriaren Kontseiluak.

## Luz verde a la memoria y al PLAN DE TRABAJO

Por otro lado, la Asamblea **aprobó** la memoria de 2010 y el plan de trabajo de 2011. Los documentos ya han sido también **presentados ante las Diputaciones** de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.








# Bere LANA ARRISKUAN dagoela salatu du EGK-k PRENTSAURREKO batean

Aurrekontuan jasan duen murrizketa dela-eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren lana arriskuan dagoela salatzeko prentsaurrekoa egin zuen EGK-k martxoaren 15ean Bilbon. JOC, Lurgorri, Kale dor Kayiko, Bizkaiko Urtxintxa Eskola, EGI, Iratzarri, Gazte Abertzaleak, Ezker Batua Gazteak eta Gazte Komunistak taldeek agerraldian parte hartu zuten.

Azken bi urteetan, **Eusko Jaurlaritzak %20an murriztu** du gazte-erakundeari ematen dion diru-laguntza nominatiboa. Hortaz, **24.727 euroko defizita**rekin hasi du urtea elkarte-plataformak.

Gazteriaren Kontseiluaren ustez, krisi ekonomikoa ez da murrizketa honentzat azalpen nahikoa. Aitzitik, gazte-plataforma honen ereduaren aldeko apustua falta dela iritzi dio. Apustu-eza hau beste maila batzuetan ere nabaritu daiteke. Testuinguru honetan, Gazteriaren Kontseilua bere aldeko atxikimenduak lortzeko kanpaina bat jarri zuen martxan. Honezkero, hainbat esparrutako **50 kolektibo eta mugimendu baino gehiagok *EGKren aldeko manifestua*ri atxikimendua** eman diote.





La labor del Consejo de la Juventud peligra por los recortes de Lakua

Urgell recorta un 20% las ayudas al Consejo vasco de la Juventud y hace peligrar su labor

Jaurlaritzak «nahita» diru laguntza gutxituta, EGK-k ohartarazi du larri dagoela

El Consejo de la Juventud ve en peligro su labor por el recorte de las subvenciones

+info *aquí*

## EGK denuncia en RUEDA DE PRENSA que su trabajo corre PELIGRO

El Consejo de la Juventud de Euskadi (EGK) ofreció el 15 de marzo en Bilbao una rueda de prensa para anunciar que su trabajo corre peligro debido al drástico en su presupuesto. En la comparecencia pública participaron JOC, Lurgorri, Kale dor Kayiko, Bizkaiko Urtxintxa Eskola, EGI, Iratzarri,  Gazte Abertzaleak, Ezker Batua Gazteak y Gazte Komunistak.

En dos años, el **Gobierno Vasco ha reducido en un 20%** la subvención nominativa que otorga a la entidad juvenil. La consecuencia es que EGK ha a arrancado 2011 con un **déficit de 24.727 euros.**

La Comisión Permanente de EGK considera que la crisis económica no explica de por sí sola esta reducción. Por el contrario, juzga que se trata de "una falta de apuesta por el modelo de EGK que no sólo se plasma en las subvenciones, sino que se deja notar también a otros muchos niveles. En este escenario, el Consejo puso en marcha una campaña de adhesión al ***Manifiesto en Defensa de EGK***, documento al que ya se han sumado más de **50 asociaciones y colectivos** de diversos ámbitos y terrenos.

# Eusko LEGEBILTZARREKO Gazteria Batzordean agerraldia egin du EGK-k, bere jarduera azaltzeko



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentea, Batiste Ezeiza, eta presidenteordea, Usoa Mediavilla, Eusko Legebiltzarreko Kultura eta Gazteria Batzordean parte hartu zuten martxoaren 29an, EGK-ko 2010eko memoria eta 2011rako plangintza azaltzeko.

Agerraldiak oihartzuna izan zuen zenbait komunikabideetan, parlamentari batzuek “diskriminatzaile”-tzat jo zutelako EGK-ren dokumentazioa euskara hutsez aurkeztu izana, besteak beste. Gazteriaren Kontseilua dokumentook itzultzeko prest agertu zen eta euskararen normalizaziorako lan egiteko bere konpromisoa berretsi zuen.





PSE y PP censuran al Consejo vasco de la Juventud por su "política de división"

SOCIALISTAS Y "POPULARES", INDIGNADOS PORQUE LA MEMORIA DE EGK ERA EN EUSKERA

# EGK explica su actividad ante la Comisión de Juventud del PARLAMENTO Vasco

El presidente y la vicepresidenta del Consejo de la Juventud de Euskadi, Batiste Ezeiza y Usoa Mediavilla, comparecieron el 29 de marzo en la Comisión de Cultura y Juventud del Parlamento Vasco para explicar la memoria de 2010 y presentar el plan de trabajo de 2011.

La sesión tuvo eco en algunos medios debido, entre otras cosas, a que algunos parlamentarios consideraron “discriminatorio” que la documentación de EGK estuviera sólo en euskera. El Consejo de la Juventud de Euskadi se ha mostrado dispuesto a traducirla, al tiempo en que ha afirmado que seguirá trabajando por la normalización del euskera.






## BILBOGUNEn ateak irekitzen

Bilbogune **jendarte-eragileen merkatuan** parte hartu zuen Gazteriaren Kontseiluak martxoaren 12an. Egun osoan zehar, bere argitalpenak eta jarduerak ezagutzera eman zituen Arriaga Antzokiaren ondoan izan zuen stand-ean. Era berean, bosgarren edizio honen antolakuntzan eta ekintzetan parte hartu zuen. Informazio gehiago nahi baduzu, jo ezazu hitzorduaren blogera!: http://bilbogune.blogspot.com

## Abriendo puertas en BILBOGUNE

El Consejo de la Juventud de Euskadi participó el 12 de marzo en el **mercado de colectivos sociales** Bilbogune. Durante todo el día, EGK dio a conocer su actividad y sus publicaciones en su stand junto al Teatro Arriaga de Bilbao. Asimismo, participó en la organización y en las actividades de la quinta edición. Tienes más info en  http://bilbogune.blogspot.com



Portada Ahotik At 7
Mujer y Joven
Emakume eta gazte

## Topaketa: 'Non gaude EMAKUME GAZTEAK?'

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eta Donostiako Emakumeen Etxeak emakume gazteentzako foro bat burutu dute **apirilaren 15 eta 16an Donostian, *Non gaude emakume gazteak?*** lelopean. Helburu nagusia emakume gazteak erakartzea izan da, edo, hobe seanda, nola erakarri daitezkeen hausnartzea. Emakumeen Etxea emakume gazteengana hobeto heldu eta partaide egin nahi delako abiatu da proiektua.

Ba al daude emakume gazteen elkarteak? Zertarako elkartzen dira emakume gazteak? Zer egiten dute? Beharrezkoa ote da inplikazio hau? Soilik emakumeak? Laster ezagutu ahal izango dituzu ondorioak.

## Encuentro: '¿Dónde estamos las MUJERES JÓVENES?'

EGK y la Casa de las Mujeres de Donostia han realizado en abril un foro para mujeres jóvenes, bajo el lema ***¿Dónde estamos las mujeres jóvenes?***. El objetivo principal fue atraer a mujeres jóvenes; o mejor, pensar cómo atraerlas.

El proyecto ha surgido debido a que la Casa de las Mujeres ha expresado sus dificultades para atraer a este sector de la pobación. Quieren conocer sus voces, sus deseos, sus límites... para poder hacer un trabajo más representativo y mejorar así sus servicios. ¿Existen asociaciones de mujeres jóvenes? ¿Para que se reunen?, ¿Qué es lo que hacen? Pronto podrás conocer las conclusiones de las dos sesiones llevadas a cabo los días **15 y 16 de abril en la Casa de Mujeres de Donostia.**

noticiasdealava.com

"Vitoria debe ofrecer servicios y recursos potentes a los jóvenes"

elcorreo.com

«Aprovecha más internet el que tiene más relaciones»

## Gasteizko GAZTERIA FOROAn sareak josiz

Apirilaren 7an Gasteizko seigarren Gazteria Foroa burutu zen, Gazteriaren Kontseiluaren eta Gasteizko Udaletxearen Gazteria Zerbitzuaren eskutik. Saioan, **Pep Montes** adituak hitzaldi bat eman zuen. Jarraian, Debagoienako **"Herrigintza gaztea"** ekimeneko kideek bere egitasmo berritzailea aurkeztu zuten. Horrez gain, **taldekako hausnarketak** eta lantegiak egin ziren. Besteak beste, gazteria-esparruan lan egiten duten eragileen beharren eta errealitateen katalogo bat osatzen hasteko.

Guztira, 25tik gora **gazte teknikari, elkartetako kide eta gazte** bildu ziren Gasteizko Simone de Beauvoir aretoan.




## Tejiendo redes en el FORO DE JUVENTUD de Vitoria-Gasteiz

El 7 de abril la sala Simone de Beauvoir de Vitoria-Gasteiz acogió el VI. Foro de Juventud de la capital alavesa, de la mano del Consejo de la Juventud de Euskadi y el Ayuntamiento gasteiztarra. Bajo el título 'Tejiendo redes entre agentes de juventud', la jornada arrancó con una charla de Pep Montes. Le siguió la presentación de la experiencia asociativa de Debagoiena Herrigintza Gaztea.

Asimismo, se llevaron a cabo reflexiones en grupo y una puesta en común para empezar a elaborar un catálogo que recoja las necesidades y realidades de los agentes que trabajan en materia de juventud. En total, participaron en el foro másde 25 **técnicos de juventud, asociaciones y jóvenes.**



## UNIBERTSITATEko hainbat elkarte lantalde berri batean bildu dira

EGK-tik abiatutako iniziatiba baten harira **Lurgorri, Ikasle Abertzaleak, Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Asanblada, Iratzarri eta Sarriko Solidariok** lantalde bat osatu dute. Elkarlanerako esparru honek EHUko **elkarteen araudi berriari aurre egiteko** alternatiba-proposamen bat garatu du, Parte Hartuz elkartearen laguntzarekin.

Araudia berriak eragin handia izango du elkarteengan, haien ardurak eta egin beharrak definituko baititu. Ikasleen errektoreordetzarekin bildu ziren Hezkuntza teknikaria eta Hezkuntza Lantaldea bere proposamena aukezteko. Unibertsitateak oraindik ez du bere erabakia ezagutarazi. Lantaldeak aurrerantzean lanean jarraituko du parte-hartzeari buruz hausnartzeko eta unibertsitateko elkartegintza sustatzeko.

## Asociaciones UNIVERSITARIAS se reúnen en torno a un nuevo grupo de trabajo!

A raíz de una iniciativa promovida por el Consejo de la Juventud de Euskadi, ha nacido un nuevo grupo de trabajo integrado por el sindicato de estudiantes **Lurgorri, Ikasle Abertzaleak, Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Asanblada, Iratzarri y Sarriko Solidario**. En sus encuentros, este grupo ha diseñado una propuesta para buscar alternativas al **nuevo reglamento de asociaciones** de la UPV.

Ese nuevo reglamento va a tener mucha influencia sobre los movimientos universitarios, dado que define sus responsabilidades y deberes. Por eso, el técnico de Educación de EGK y el grupo de trabajo se reunieron con el Vicerectorado de Alumnado para presentarle su propuesta. La Universidad todavía no se ha pron unciado al respecto.
¡El grupo de trabajo seguirá trabajando a favor del asociacionismo universitario!

## ETXEBIZITZA PLANA LURPERATU DU EtxebizHitza Plataformak!

Aurreko urteetan bezala, EGK-k EtxebizHitza Plataforman parte hartzen jarraitzen du, egun etxebizitza eskubidearen defentsaren inguruan eragile ezberdinak batzen dituen gune bakarrenetarikoa baita. Bertan, Eusko Jaurlaritzatik azkenaldian bultzatutako neurrien edukiak aztertuta, honen inguruko agerpen publikoetara jotzea erabaki da. Iragan abenduan onartutako 2010-2013 Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzaileak kutxa, banketxe eta sustatzaileen aldeko neurriak finkatzen dituztela salatzeko, **Planaren Lurperatzea irudikatu zen martxoaren 24ean EJren Bilboko Egoitza** parean egindako elkarteratzean. Plataformatik, bestalde, Etxebizitza Legearen aurreproiektuari ekarpenak egiteko asmoz, proposamen zehatz bat lantzen ari da.



## ¡La Plataforma EtxebizHitza ha enterrado el Plan director de Vivienda!

El pasado 24 de marzo, la Plataforma de vivienda EtxebizHitza (en la que participa EGK con sindicatos y colectivos sociales) **escenificaron frente a la sede del Gobierno Vasco en Bilbao el entierro** del Plan Director de Vivienda, para denunciar que el citado documento "beneficia a bancos, cajas, constructoras y promotoras" en perjuicio de la ciudadanía.

Ataviados de luto y portando un ataúd, los congregados teatralizaron el sepelio de "un Plan que, en la medida que recoge las líneas del Pacto Social por la Vivienda, lejos de garantizar el derecho a la vivienda pretende socorrer al sector de la construcción y de la banca".

berria.info

## Jaurlaritzaren Etxebizitza Plana «lurperatu» dute

**BILBO.** Hainbat gizarte eragile batu ziren atzo, Bilbon, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Plan Zuzentzailea salatzeko. Besteak beste, LABek, EILASek, Sare Antifaxistak eta Ezker Gogoak hartu zuten parte protestan. *Etxebizitzari bai, ez etxebizitza plan honi* izan zen leloa. Agiri bat irakurri eta planaren lur ematea irudikatu zuten.




elcorreo.tv




BIDEOA **IKUSI** // VER **VÍDEO**

GARA

## Agentes sociales denuncian que el Plan de Vivienda sólo rescatará a las constructoras

# ETXEBIDE.... o ETXEBILA?

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua eta ESK, STEE-EILAS; LAB, Berro Otxoak eta Kepasakonlakasa parodia bat antzeztu zuten Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitzaren parean apirilaren 8an, **Etxebizitza Legearen inguruan abiatutako parte-hartze prozesua kritikatzeko**, ArriTrola eta ZabalGetaz jantzita!

Era berean, parte-hartzeko bide alternatiboak aurkeztu zituzten jendarte-eragileek. Horietako bat honako bloga da: **http://etxebila.wordpress.com**

El Consejo de la Juventud de Euskadi y los sindicatos y colectivos sociales ESK, STEE-EILAS, LAB, Berri Otxoak y Kepasakonlakasa escenificaron el 8 de abril frente a la sede del Gobierno Vasco en Bilbao una parodia en la que, con la intervención de ArriTrola y ZabalGeta, criticaron el proceso participativo puesto en marcha en torno a la nueva Ley de Vivienda.

Asimismo, presetnaron nuevos cauces de participación alternativos a los del Ejecutivo. Uno de ellos es el blog **http://etxebila.wordpress.com**



# LABURRAK

**Bi eskola gehiago sartu berri dira, otsailean, Bizkaiko Astialdi Foroan: Aisiola Eskola** (ikastolen elkarteko astialdi eskola) eta **Kurkudi Eskola** (Askartza-claret ikastetxeko astialdi eskola). Dagoeneko, Erkidegoan dauden 18 eskoletatik hamaseik Astialdi Foroan parte hartzen dute. Bestalde, eskola guztiak bildu ziren otsailaren 11n, aurtengo lan-ildoak finkatzeko. Hori bakarrik ez: Gipuzkoako federazioak **Argazki lehiaketa** bat diseinatuko du, astialdi-hezitzaileari buruzko sentsibilizazio kanpaina bat abiatzeko. Laster informazio gehiago!

Iaz EGKren eskutik egindako “**Planoetatik Kalera**” topaketek jarraipena izango dute aurten. Egitasmo hau egunotan sortzen ari diren proposamenekin lotzeko asmoz, EGK-k Bilboko Deshazkunde taldeak bultzatu zituen “Lurralde Antolamendua elkarrekin eraikiz” jardunaldian parte hartu zuen. Bertan izan zen eztabaida abiapuntutzat hartuko da administrazioak bultzatu duen **“Euskal Hiria” dokumentuari bertsio alternatibo bat** aurkezteko. Administrazioak defendatzen duenean ez da aintzat hartzen baliabide naturalak mugatuak direla eta egun dagoen eredu ekonomiko eta soziala guztiz bidegabekoa dela. Lan ildo honekin hornituko dira **hirigintzaren inguruko hurrengo topaketak.**

# ...breves...



El Consejo de la Juventud de Euskadi denunció el 31 de enero la **muerte por accidente laboral** de un joven alavés de 26 años que dos semanas antes sufrió, en una obra de Lezama, una caída que le costó la vida nueve días después. +info **aquí**. Por otra parte, EGK publicó un comunicado para denunciar el desalojo del nuevo **Gaztetxe de Galdakao** (ver más **aquí**).




Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak lanpostu deialdi bat zabaldu du. Zehazki, bete behar duen lanpostua 'Bizi baldintza materialak arloko teknikaria'rena da (alegia, arlo sozio-ekonomikorako teknikariarena). Hautagaiek 30 urte izan behar dituzte gehienez, euskara menperatu behar dute eta apirilaren 20a baino lehen bidali behar dituzte kurrikulumak.

Informazio gehiago ***www.egk.org*** atarian.

# ...bukatzeko...




El programa Gazte Borraste del Consejo de la Juventud de Euskadi ya empieza a consolidarse! Este trimestre han pasado por nuestros estudios **Gazte Komunistak, Marasma Saretzen, Bizkaiko Urtxintxa Eskola, Herrigintza Gaztea, Kale Dor Kayiko, EtxebizHitza plataforma**... ¡Sigue el programa a través de http://tas-tas.org/web/eu/gazte-borraste! Y si quieres participar o difundir tus convocatorias, no lo dudes: escribe a gazteborraste@tas-tas.org ó a komunika@egk.org.

Por otro lado, EGK sigue colaborando con medios como **EuskoNews Gaztea y Goitibera.**

Aquí tenéis algunos de los últimos artículos, en un click:

**Para eso sirve: para caminar.**

**Non daude emakume gazteak?**

**Negu gorri garaia**

**Zein jarrera dute gaurko gazteek berdintasunaren aurrean? Beldurretik erantzukizunera.**

El

# egk digitala

euskadiko gazteriaren kontseiluaren boletin digitala
boletin digital del consejo de la juventud de euskadi


www.egk.org
komunika@egk.org

araba:
ramiro de maeztu 15 bajo (gasteiz)
tlf. 945 22 06 01
fax 945 22 06 01

bizkaia:
autonomia 44 bajo (bilbo)
tlf. 94 443 61 43
fax 94 444 81 71

gipuzkoa:
andia 11 ppal (donostia)
tlf. 943 42 97 67
fax 943 42 98 37